



Zer-nolako Euskal Liburutegi Nazionala?

Liburutegiak, informazio eta zerbitzugune gune gisa, gero eta garrantzi handiagoa du egungo gizartearen baitan, «informazioaren gizartea» deitzen den honetan hain zuzen ere. Arrazoi horregatik, euskal gizartearentzat eta kulturarentzat pisu estrategiko saihestezina du Liburutegi Nazionalaren auziaz eta proiektuaz gogoeta egiteak. Oraindik gauzatu gabe dagoen egitasmo honek, hasiera batean, guztion oniritzia jaso dezake. Haatik, proiektua bera aurrera eraman eta bideratzerakoan sor daitezke ñabardurak eta desadostasunak.

Liburutegi nazionalaren auziari heltzeko, egokia iruditu zaigu, lehen kontaktu modura, hainbat adituri galdeketatxo bat igortzea. Gure asmoa, liburutegiak egungo gizartean duen eginkizuna zehaztu ondoren, Liburutegi Nazionalaren proiektuaren ahalgarritasun eta bideragarritasunaz galdetzea izan da, proiektua nork eta nola sustatu eta zuzendu beharko lukeen jakiteko asmoz. Horrez gain, Jon Bilbaok abian jarritako *Eusko Bibliographia*-ri buruz ere galdetu dugu, egitasmo honi berriro ere ekitea merezi duen jakiteko.

Esan bezala, batzuren eta besteren iritzia jaso nahi izan du *Jakin*-ek. Azkenean, honako lau lagun hauek erantzun digute: Joseba Agirreazkuenaga eta Ludger Mees historialariek, Henrike Knörr euskaltzain eta hizkuntzalariak eta Andres Urrutia euskaltzain eta notarioak.

Ondoren, aditu hauei egin dizkiegun hiru galderak datoz:

- 1.- Zein da liburutegiaren eginkizuna gaur egungo gizartean?
- 2.- Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia* etenda dago. Berpiztea merezi al du? Nork? Nola?
- 3.- Euskal Liburutegi Nazionala gorpuztu gabeko proiektua da. Merezi al du martxan jartzea? Nork? Nola?



Joseba Agirreazkuenaga

- 1.- Erakunde guztiak mundu aldakorrean bere egitekoa aldatzen ari dira. Biblioteka ez da biltegia, bibliotekariak bihurtu dira garrantzitsuak eta zerbitzu legez, laguntzeko daude, informazioa eta bibliotekako jakituria zabaltzeko. Beraz bezeroak erakartzeko toki alai eta interesgarriak bihurtu dira, eta bertan zer hartu zer ikasi, geure kezka eta premiak asetzeko adina eduki beharko luke. Norberaren bibliotekaren luzapena dugu, baina laguntzailea, bibliotekaria, bitarteko. Ikuspegi honetan, Bibliotekaren helburuak lirateke:
- Komunitate jakin baten memoria bizia izan, hilak ez baitira hiltzen, gogoratzen diren bitartean.
 - Informazio bide eta gune izan, geure kezka eta premiak asetzeko.
 - Jakintza egitasmoa, ezagutzak lortzeko bide erosoak izan: jakintza gunea, bildumak, kulturagune dinamikoak, bihurtu behar dira Bibliotekak, komunikazio sare guztietara loturik, eta hiriaren informazio gune garrantzitsuena bihurturik, iragana eta etorkizunaren arteko zubia, denborarik gabeko zentroa. Jakintzaren tenplu berrietan, espazio sakratua eta lan egiteko izango dira, norberaren lana eta hezkuntza hartzeko bidea ematen saiatu behar direlako. Gizarte berrietan informazioa egitasmo estrategikoa bihurtu da etengabeko hezkuntzan murgildurik gaudelako. Beraz biblioteka publikoek informazioa ez ezik jakintza lortzeko bidean sakondu behar dute.
- 2.- Premiazkoa da. Komunitate baten izatea eta nortasuna gaur egunean ezagubide inmaterialean gero eta gehiago finkatzen da. Bibliografia urtero argitaratzeak helburu estrategikoa izan behar luke. Konsortzioa lortu beharko litzateke erakunde guztien artean. Eusko Ikaskuntzak ahalegin berezia egin beharko luke eta ardura bere gain hartu.

3.- Artxibategi nazionala eta biblioteka nazionala, herri baten nortasun ikurrak dira eta politika komuna lortzeko behin-behineko tresna eta bitartekari.

Izen ponposoak alde batera bazterturik, zuzendaritza arazoa dugu koska nagusia eta horretarako dago biblioteka nazionala, sistemaren buru hierarkikoa izateko. Azken hogeitau urteotako hutsune politiko nabarmena dugu berau eta ezin esan eskumenik ez dugunik.

Biblioteka nazionalaren fundatzea 2000 urteko helburu bihurtu, Herri Biblioteka nagusi bati dagozkion eta ohiko diren funtzio nagusi eta gidari izateko. Horra helburu garbia eta subiranoa, estatutuaren babespean, azken batean Euskal Herri mendebalean dago herri borondatea horrelako proiektuan abiatzeko. Beharbada ez du izango ondare baliotsu nagusia baina bai aginte nagusia, biblioteken Herri sare nagusia artikulatzeko eta arautzeko. Horra koska, ahaztu gabe, internet sarean, izugarritzko lana eta ondarea lortzeko bidea izango lukeela, etorkizunean, ondarea ez baita izango Leizarragaren lehen edizioa edukitzea, informazio eta jakintza gune garrantzitsuak landurik edukitzea baizik. ¶



Henrike Knörr

1.- Liburutegi modernoek ahalik eta informazio zabalena eskuratu eta irakurleari eroso eskaintzea dute eginkizuna, zeinahi euskarritan (paper, disko, banda, irudi, e.a.).

2.- *Eusko Bibliographia*-ren lan luze neketsua etenik dago, tamalez. Zenbaitek ordu asko sartu genituen, Jon Bilbao Ameriketatik etorritz geroztik. Elkarte bat ere sortu genuen, laguntzeko. Baina Eusko Jaurlaritzan ez genuen inolako harrera onik aurkitu eta hiltzen utzi zuten, zoritxarrez. Nik hitzarmen bat proposatu nuen, Gasteiz, Iru-

ña eta Madrilgo Gobernuekin, eta Iruñean eta Madrilen ongi hartua izan zen proposamena. Baina Joseba Arregi sailburuak ez zuen zipitzik egin, eta, txarragoa dena, esan zuen ni Elkarte horretako buruzagitzan egongo nintzen bitartean ez zuela dirurik emango. Aldegin nuen, eta hala ere *Eusko Bibliographia* desagertu zen.

Nik oso beharrezkoa dakusat bibliografia lan hori. Mila bider nahiago dut «nazional» eta oinarrizkoa den eginkizun hau, ezen ez «nazionalista» omen diren beste asko, aho beteka eta arrabots handiarekin aurkezten diren horiek. Hauxe ausartzen naiz proposatzera:

a) Argitaratu gabe dagoen materiala (1981-1985) argitaratu. Oroit Euskal Herriko Unibertsitatearen babespean argitaratu zela urte horiei dagokien materiala, 1996an, baina A-B letrak bakarrik kaleratu dira.

b) Eusko Ikaskuntzan sortu euskal bibliografiaren atala, mundu guztiak artikulua eta liburuen erreferentzia paperean eta ordenagailuan eskura izateko.

c) Jakina, Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia* osoa ordenagailu bidez irakurle eta ikertzaile guztien eskuetan ezarri behar da.

3.- Inoiz Liburutegi Nazionala egingo balitz, ene ustez, Eusko Ikaskuntzak beharko luke eginkizun garrantzitsu hori bere gain hartu. ♣



Ludger Mees

1.- Gure biharko gizartea, gaurkoa baino gehiago, informazioaren gizartea izango da. Etorkizunean, neurri handi batean, gure bizitzaren kalitatea une aproposetan informazio ego-kia gureganatzeko dugun gaitasunaren arabera erabakiko da. Informazioaren kopurua gero eta handiagoa bada ere eta informazio iturriak gero eta anitzagoak izan arren, gure beharrak gero eta zehatzagoak eta espezialagoak ere badi-

ra. Liburutegi batera inguratzen garenean, ez gara joaten zer dagoen ikustera, baizik eta —adibide bat aipatzearen— informatikako programa bati buruzko liburu jakin bat aurkitzera, edo galdetzera programa horri buruzko libururik ba ote dagoen. Edo beste adibide bat: idazten ari naizen liburu baterako erabili nahi nituen sarrera gisa Bob Dylanen kanta baten letrak. Zehaztasunez buruz gogoratzen ez nitueenez, nire bilaketa prozesuak pausu ezberdinak eman behar zituen, orokorretik zehatzera: musika - folk eta pop musika - Bob Dylan - kantak. Azkenean, behar nuen «The Book of Bob» hura Interneten aurkitu nuen, bilatutako kantuaren letrak eta guzti.

Azken adibide honek argi erakusten duen legez, informazioak eta informatikak kontrolatzen duten gure «sare gizartean» liburutegien eginkizuna ere nabarmenki aldatu du. Espezializazioaren legeak liburutegien munduari ere bere logika ezarri dio, eta lege horren logika oso erraza da: gure gizarte modernoa zenbat eta konplexu, anitz eta espezializatuago bihurtu, hainbat eta presio handiagoa ere sortzen da gure liburutegiak bilakaera horri egokitzeko. Izan ere, gaur egun munduan zehar gero eta liburutegi gutxiago dago han eta hemenka argitaratzen diren liburu guztiak edo gehienak bere baitan fisikoki biltzeko asmoa dutenak. Bestalde, arloka edota gaika antolatutako liburutegiek emaitza onak lortu dituzte. Nik ondo ezagutzen ditudan artean bakarren bat aipatzearen, Gasteizen dagoen *Fundación Sancho El Sabio* elkarteak kudeatzen duena aipatuko nuke, hori euskal gaiei eta euskal historiari buruzko liburutegirik onenetarikoak baita, onena ez bada, eta horretarako baldintza guztiak betetzen ditu: liburu eta beste dokumentuen bilduma oso konpletua, ondo ordenatuta, informatizatuta, pertsonal iaioa eta irakurgela lasai eta atseginak, besteak beste.

Jakina, hau liburutegi bat eta adibide bat besterik ez da. Gaur egun jadanik liburutegien mikrokosmosa oso heterogeneoa da, baita bere publikoa, eta honen interesak eta beharrak ere. Beraz, orrialde labur honetan goiko galderari behar bezain sakonki erantzuteko gauza ez naizela aitortu behar dut. Auzo bateko liburutegi batek ez du ia zerikusirik unibertsitate batekoarekin, ezta azken honek Washington-

go *Library of Congress* ospetsuarekin. Ezer gutxi... eta halere asko: Internet eta ongi antolatutako mailegu zerbitzu baten bidez, gaur egun elkarren arteko lotura egiteko aukera badago eta. Halere, Internet ez da dena. Mota guztietako liburutegietako arduradunek beste eginkizun garrantzitsu bat ez bailukete ahaztu beharko: liburutegia beraien bezeroen topaleku atsegina eta kultur ekintza ezberdinak bultzatzen dituen erdigunea bihurtzea hain zuzen.

- 2.- Jon Bilbaoren bibliografia, lan benetan erraldoia eta guztiz txalogarria da. Bere asmoa eta helburua, berak lortutako emaitza bezain monumentala izan da: euskal gaiei buruz idatzitako eta argitaratzen zen guzti-guztia biltzea. Zer esanik ez dago asmo honetan oinarritutako bibliografia honen bere garaian izugarrizko laguntza suposatu zuela (eta oraindik suposatzen duela) ikerlarientzat eta beste edozein interesaturentzat. Beraz, lan honi jarraipena ematea mereziko luke. Halere, gai honetan ere ezin ditugu ahaztu goian jadanik aipaturiko aldaketak. Alde batetik, ez zait iruditzen osotasuna edo exhaustibitatearen helburua errealista denik. Izan ere, beste arlo gehienetan gertatu den bezalaxe, euskal gaiei buruzko argitalpenek azken hamarkadetan ere berebiziko gorakada eta hedapena ezagutu baitute, bai kopuruari, bai jorratzen diren arloei dagokienez. Bestetik, gure interesen bereizketa eta mugapena dela eta, ez dut uste —esate baterako— euskal kirol batekiko interes berezia duen ikertzaile edo irakurle batek aldi berean Nafarroako perretxikoei edo Iparraldeko dantzei buruzko jakin-minik duenik. Beraz, hemen ere arlokako antolaketa izango litzateke egokiena eta, gainera, zenbait arlotan jadanik badago martxan horrelako ekimen bat. Horrela, *Vasconia* aldizkariko aleetan Unibertsitateko zenbait irakaslek zuzenduriko euskal historia garaikideari buruzko bibliografia bat argitaratzen da. Ekimen hori beste zenbait arlotan ere burutu nahi izanez gero, une honetan hori egiteko gauza izan litekeela ikusten dudan elkarte bakarra Eusko Ikaskuntza da, Eiren sail ezberdinak hain zuzen. Hemen ere informatikak eskaintzen digu laguntza handia behar-beharrezkoa den espezializazioa lortzeko, Jon Bilbaok planteatzen duen bezalaxe.

tzen zuen osotasunari uko egin gabe. Izan ere, sailek atalkako bibliografiak osatzen badituzte, lan horren fruituak Interneten jar litezke, bisitari elektronikoari nahi dituen arloetan nahi adina kontsulta egiteko aukera emanaz.

- 3.- Bapatean egindako galdera honi erantzun azkarra ematekotan baiezko borobila litzateke. Zergatik ez gorpuztu Biblioteka Nazionala hemen ere? Euskal Herria nazio bat baldin bada, bere kultura babestu eta suspertzeko kome-nigarria litzateke zalantzarik gabe. Katalanek ere beren *Biblioteca de Catalunya* badute eta. Halere, erantzun azkar hau eman ondoren, zalantzak datozkit. Lehenik eta behin, goian arlokako liburutegien beharra eta egokitasuna defendatu ditut. Filosofia honetan oinarriturik, ez al litzateke askoz ere interesgarriagoa izango liburutegi nazional erraldoi berri baten ordez arloka antolaturiko zenbait liburutegi nazional sortzea? Horrela, Biblioteka Nazional handi batek sortuko lukeen arazo ekonomikoa murriztu egingo litzateke eta probintziakeriak desegituratutako gure herri txiki honetan Biblioteka Nazionalaren kokapenak eragingo lituzkeen borroka ere leundu egingo liriateke, biblioteka handi baten ordez zenbait biblioteka txikiago kokatu beharko liriatekeelako. Informatikaren bidez elkarrekin loturiko zentro horiek guztiek osatuko lukete Euskal Biblioteka Nazionala. Hori, noski, gaur egun amets bat besterik ez da, baina historian zehar sarritan gertatu den bezalaxe, gizakiok batzutan ametsak egia bihurtzeko gaitasuna izaten dugu. Halere, lan horri ekin aurretik, bi baldintza bete beharko liriateke: batetik, beharren azterketaren araberako plangintza zehatza eta sakona, martxan dauden eta sortu nahi genituzkeen liburutegiek zerbitzua-ren bikoiztasuna eskaini ez dezaten. Bestetik, nola ez, bideragarritasun azterketa zorrotzak argitu beharko liguke zentro berri horiek sortzeko eta kudeatzeko beharrezko den dirutza nola lor daitekeen. Horrelako Biblioteka Nazionala baina deszentralizatua ongi gorpuztu nahi bada, eta baliabide ekonomiko oso handiak behar direnez gero, nik gai honetan ikusten dudan irtenbide bakarra diru publiko eta pribatuaren arteko elkarlana da. ¶



Andres Urrutia

1.- Hogeigarren mende amaieran biblioteka baten egitekoaz galdetzea, aspalditik ezagutzen dugun biblioteka klasiko horri agur egitea bezalakoxea da. Biblioteka baten eginkizunak, ene aburuz, ezin daitezke besterik gabe moldatu, biblioteka horrek duen ingurukoa bazter utzita. Hartara, biblioteka mota anitz zehaztu ditzakegu, batera edo bestera: herriko biblioteka, auzo biblioteka, unibertsitate biblioteka, ikerketa berezietarako biblioteka, biblioteka nazionala... Hortik bideratuko nuke nik bibliotekaren zereginetarako lehen gurturaketa.

Itaun horretan bada bestelakorik, eta horri ere jaramon egin behar, erantzun nahikoa eman nahi izanez gero. Liburuak izan ohi dira bibliotekaren objektuak eta protagonistak. Idatzizko euskarri horiek, alabaina, ikus-entzunezkoari eman diote txanda bibliotekagintzan. Elkarren osagarri direlakoan, gero eta zabalagoa da horretarako letrakera, maizago azalarazten baita denon aurrean horretarako gogoia.

Egoitza dute liburuek biblioteka. Norbanakoek, ostera, bibliotekan, irakurtoki, ikustoki, egontoki, atsedenteku, informazio gune... horiek guztiak nahi dituzte.

Horra hor, beraz, etorkizun baterako ardatz azpimarragarriak bibliotekagintzan. Hasian hasi, ingurukoa oinarri: non jarri eta zertarako erabili (herri, auzo, unibertsitate, ikerketa zentroak...), zer eduki eta nola erabili (liburuak, ikus-entzunezkoak, aldizkariak, egunkariak eta bestelako euskarriak) eta norentzat jardun (jende xehea, espezialistak, jendarteko zabala...).

Oro har, eta aurrekoak abiapuntu jarrita, eginkizunok honetara zehaztuko nituzke, euren arteko hurrenkeraren osagaiei inolako barne lehentasunik eman gabe: (a) Ingurukoan txertatu. (b) Liburuaz at, bestelako euskarriak ere horretara bildu. (c) Kulturgunea sortu. (d) Jendea erakarri.

2.- Horren ordezkoak ere, badabiltza Euskal Herrian. Ez, ostera, autore hark erabili zituen tenore eta molde bertsuetan. *Me-rezi* aditza erabiltzen da galdera egitean eta, ihardespena emateko unean, *merezimenduaz* hitz egin behar, nahitaez, egoki eta zuhur jokatu ahal izateko. Nire iritziz, mereziko luke berpiztea. Besteak beste, erreferentzia kontuetan behar-beharrezkoa izan dugu urte luzeetan Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia* eta oraindik ere, saihestu ezinekoa da.

Menturaz, aldatzekoa izango litzateke egiletzaren lan modua. Taldea ikusten dut nik hor ezinbesteko, talde lana baita, ene aburuz, egungo Euskal Herriak bibliografia kontuetan behar duena. Talde lana, baliabide teknikoez ondo hornitua. Esan gabe doa, autoreka ez ezik, gaika eta aldika ere ezagutu beharko genituzkeela Euskal Herriaren nahiz Euskal Herriari buruzko gorabeherak, liburuez besteko euskarriak alboratzeke.

Especialisten lana, hortaz, egin beharrekoa, eta ahalik eta mamitsuen taxutzeko modukoa.

Galderak, alabaina, *nor* eta *non* horien nondik-norakoak ere baditu. Horiek, dudarik ez, erantzuten zailak. *Nor* hori aintzat hartuz gero, bistan da, lehen esan legez, norbanakoarena baino gehiago, talde lana dela hori. Egileak nortzuek izan behar duten zehazteko abagunean, jakina, apartera joan beharrik ez, dagoeneko batzuk jardunbidean ari direlako: Joan Mari Torrealdairen lan eskerga, Eusko Ikaskuntza, Azkue Biblioteka edota besterik gabe sor daitkeen lan talde berria. Azken horretan, zeresanik ez, beren beregi jokatu behar, diruz egoki hornitu, eta etorkizunerako egitasmo sendo batez ehotu.

Susmoa dut ez ote den hori, besterik ezean, diru publikoaren bidea baino. Izan ere, diru pribatuak nekez helduko dio zeregin horri, bien bitartean etekinak eskuratu-ko ez baditu. Epe laburreko etekinak, alegia.

Horrexegatik ikusten diot *nor* horri aldarte bikoitza edo aurpegi osterantzekoa: egileak batetik eta sustatzaileak (eta sostengatzaileak) bestetik.

Labur-zurrean, *nortasun* horretan talde lana eta diru publikoa (neurri handi batean bederen).

Nolakotasuna dut bigarren azpigaldera. Esana dut, eta jada irakurtuetatik datorrenez, irizpide anitzak (eta zehatzak) erabiliko nituzkeela nik neuk halakoak moldatzean. Euskal Herriarekin zerikusirik duen oro, behinik behin, horra bildu, eta ahalik eta erosoan zabaldu (eta barreiatu) gero informazioa, euskarriak ere modu askotakoak onartzuz.

Bi-biok loturik daudela ezin uka. Aurrerago ibili naiz diru publikoa dela eta ez dela. Erakargarria, nolana ere, diru pribatuarentzako aukera. Ez nuke nahi nik harako hura, hots, *aukeraren maukera*, *atzenean okerra*, egia bihurtzea. Egingarri ote, molde berean, proiektu horretarako diru pribatuaren etorrera? Horra hor galdera markaren indarra.

3.- Euskal Biblioteka Nazionala, hala dio galderak, gorpuztu gabeko proiektua da. Gerorako proiektua ote? Ene iduriz, teoriarik behinik behin, egiteko modukoa eta ongaria Euskal Herriarentzat. Bestelakoa, aldiz, une honetan proiektu hori egingarri den. Sakabanatze larregi ikusten dut nik hor, erakunde eta norbanako franko dabilelako tira-tiraka, nork bere buruari eutsi nahian, azkenean ere ea hortik zerbait bideratzen duen.

Ematekotan, seguru, Euskal Autonomia Erkidegoan eman beharko lirateke lehendabiziko pausoak. Betiere, sakoneko loturak izanik Ipar zein Nafarroako errealitate horiekin, geroko batean ondo atonduta ibil gaitezen denok.

Aurrekoari lotuta dago, estu-estuan, galdera horien azpiko galdetegia. *Nork?* Berriz diot, diru publikoaren eta, hala nahi izanez gero, diru pribatuaren parte-hartze zabalak. *Fundazio* hitza aipatzea ere, ustekabea ez. Hortik, agian, ikusiko nuke nik aukeraren haria. Horrek, orobat, baldintzatuko luke galderaren bigarren zatia, hau da, *nolakotasuna*.

Ikusi ere, sarea ikus dezaket nik oinarri, egunotan dugunetik aurrera joan ahal izateko. Egundainokoaren sarea, elkarteak, ituna,... diru publikoaren babespean eta diru pribatuaren parte-hartzearekin. Sare horretarako baliabide informatikoak ere lagungarri. Hortik susma daiteke

gerogarrenerako hasiera gorpuzteko hazia, azken xede hori iristeko.

Eskura izatera, orrialdetxo hauetan zehar esandakoa errepikatzeko ausardia hartuko nuke beste behin ere, hauxe gogorarazteko: hiru horiek, alegia, *Euskal* eta *Biblioteka* eta *Nazionalak*, erro-errotik bete behar dute euren titulua-ren esana, eta Euskal Herriari buruzko oro bertara bildu, edozein euskarri tartean dela eta, zeresanik ez, Euskal Herriaren naziotasun hori ahaztu gabe.

Zalantzarik ez, nork, nola eta zertan ulertzen duen naziotasun horrek leku zabala beharko luke zeregin horretan. Baina hori, argi dago, beste upeleko sagardoa da. ♣